



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

ISPASTERKO UDALEKO LAN POLTSA

ZERBITZU ANITZEKO LANGILEA

LEHENENGO ARIKETA

2017ko ekainaren 14a



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

JARRAIBIDE ORRIA

EZ IDATZI EZER, EPAMAHAIK ESAN ARTE

- Utzi **NANa mahai gainean**, ondo ikusteko lekuan. Ariketak dirauen bitartean han egon behar du.
- **Sakelako telefonoa deskonektatu eta gorde.**
- Mahai gainean, azterketa egiteko eman dizugun materiala, jasoko duzuna, eta nortasun agiria besterik ezin dituzu eduki.
- Azterketa egiteko denbora osoan zehar, **erabatekoa izan behar du isiltasunak**. Norbaitek ezegoki jokutzen badu, edo beste lagunei kalte edo enbarazu egiten badie, azterketa-lekutik kanpora bidaliko da.

LEHENENGO ARIKETA, TEORIKOA

- Erantzunak **boligrafo beltzez edo urdinez** beteko dira.
- Galdera bakoitzak lau erantzun ditu aukeran: A, B, C eta D. Bakoitzak erantzun zuzen bat eta bakarra dauka.
- Epaimahaiak agintzen duenean, bete itzazu erantzun-orriko buruan eskatutako datuak: **izen-abizenak** eta **NAN zenbakia**.
- Azterketak **35 galdera** ditu.

Azken 5 galderak ordezkokoak dira. Ordezko galderak bakarrik hartuko dira kontuan aurreko 30etako bat baliogabetzen bada. Hala ere, **zuk galdera guztiak erantzuten saiatu behar duzu.**

Azterketa egiteko **45 minutu izango dituzu.**

- **Penalizazioa:** Oinarrien arabera, ariketa honetako puntuak ondorengo formularen arabera batuko dira: **Zuzeneko puntuazioa berdin erantzun zuzenen kopurua ken errore kopuruaren herena izango da ($P=Z-E/3$).** Modu honetan gehienez ere 30 puntu lortu ahal izango dira. 30 puntu lortzen dituenak 30 puntuko azken puntuazioa izango du ariketa honetan.

Erantzun gabeko erantzunak ez dute zigorrik izango.

- Ariketa hau, gehienez ere, 30 puntuz baliotsiko da. Epaimahaiak erabaki du **proba hau gainditzeko gutxienez 15 puntu lortu behar direla.**



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

GALDERA SORTA

1.- Zein da Ispasterko patroia?

- a) San Miguel.
- b) Santa Ana.
- c) Santiago.
- d) Aurreko bat ere ez.

2.- Zeintzuk udalerrik egiten dute muga Ispasterrekin?

- a) Lekeitio, Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Nabarniz, Ereño eta Ea, beste zenbait herriren artean.
- b) Lekeitio, Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Nabarniz eta Bedaronak.
- c) Lekeitio, Mendexa, Amoroto, Gizaburuaga, Aulesti eta Ea.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

3.- Zenbat auzo daude Ispasterren?

- a) 10.
- b) 11.
- c) 12.
- d) 13.

4.- Baieztapen hautetatik zein da zuzena.

- a) Ogellako hondartzak Euskadiko hondartzetako eta horien inguruneetako kudeaketa eta kalitateari buruzko esparruan sartuta dago, ISO 9001 eta 14001 ziurtagiriak dituelarik.
- b) Ogellako hondartzak Bizkaiko hondartzetako eta horien inguruneetako kudeaketa eta kalitateari buruzko esparruan sartuta dago, ISO 9001 eta 14001 ziurtagiriak dituelarik.
- c) Ogellako hondartzak Espainiako hondartzetako eta horien inguruneetako kudeaketa eta kalitateari buruzko esparruan sartuta dago, ISO 9001 eta 14001 ziurtagiriak dituelarik.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

5.- Hauetako zeintzuk ibai edo erreka daude Ispasterren?

- a) Lea eta Arginerreka.
- b) Arginerreka eta Ubilla.
- c) Lea eta Ubilla.
- d) Aurreko guztiak.

6.- Nola deitzen da Ispasterren kokatuta dagoen industrialdea?

- a) Basokoetxe.
- b) Okamika.
- c) Otoio.
- d) Lealde.

7.- Egungo hilerria zein auzotan dago kokatuta?

- a) Elexalde.
- b) Kortazar.
- c) Barainka.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

8.- Noiz ospatzen da Ispasterren San Martin jaia?

- a) Uztailaren 4 eta 26an.
- b) Uztailaren 4an.
- c) Azaroaren 11n.
- d) Uztailaren 4an eta azaroaren 11an.

9.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena?

- a) Urkitza torre Gardata auzoan dago.
- b) Urkitza torre Artika auzoan dago.
- c) Urkitza torre Kurtxiaga auzoan dago.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

10.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena:

- a) Ispasterreko hondakin-uren araztegia Arropain auzoan dago kokatuta.
- b) Ispasterren ez dago hondakin-uren araztegirik.
- c) Ispasterreko hondakin-uren araztegia Larrinaga auzoan dago kokatuta.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

11.- Non kokatzen da Bertxiako ur depositua?

- a) Bertxiaga auzoan.
- b) BI-2238 errepidearen ondoan.
- c) BI-3238 errepidearen ondoan.
- d) Kortazar auzoan.

12.- Zenbat basiliza daude Ispasterren?

- a) Hiru: San Martin, Santa Kurutz eta Santiago.
- b) Hiru: San Martin, Santiago eta Santa Ana.
- c) Lau: San Martin, Santa Ana, San Miguel eta Santa Kurutz.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

13.- Ondorengoetatik zein ez dugu aurkitzen Ispasterko kale-izendegian?

- a) Agarretxu kalea.
- b) Ainhoa Arteta kalea.
- c) Erkiaga kalea.
- d) Iñigo Egiluz enparantza.

14.- Zein errepide da Ispasterko erdigunetik pasatzen dena?

- a) BI-3238.
- b) BI-2238.
- c) BI-2405.
- d) Aurreko bat ere ez.

15.- Zein da zuzena

- a) Jacinto Arana Zubieta Jauregian jaio zen.
- b) Jacinto Arana Arana Jauregian jaio zen.
- c) Jacinto Arana Vista Alegre Jauregian jaio zen.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

16.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena.

- a) Ispasterko herriak energia berriztagarrien aldeko apustua egin du, gehien bat itsasoko olatuek sortutako energiari esker.
- b) Ispasterko herriak energia berriztagarrien aldeko apustua egin du, eguzki energiaren bidez hirigune guztia hornitzen da.
- c) Ispasterko herriak energia berriztagarrien aldeko apustua egin du, eguzki energia eta biomasaren bitartez udal eraikin gehienak hornitzen dira.
- d) Aurreko bat ere ez.

17.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena.

- a) Herriko plazaren izena Herriko Plaza da.
- b) Herriko plazaren izena Elexalde enparantza da.
- c) Herriko plazaren izena Enparantza da.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

18.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena.

- a) Nahiz eta Txanton Pipirri jaietako ikonoa izan, ez du zerikusirik herriarekin.
- b) Txanton Pipirri jaietan bakarrik ateratzen da, urtean zehar ez du ezertan gehiagorik parte hartzen.
- c) Aurreko biak zuzenak dira.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

19.- Euri-jasak gertatzen badira, zeintzuk dira lehentasunez garbitu behar diren tokiak?

- a) Plazak eta jendea biltzeko tokiak.
- b) Hustubideak.
- c) Sifoiak.
- d) Malda handiak dituzten kaleak.

20.- Nola deritza barrutik armadura metaliko batekin indartzen den hormigoia:

- a) Hormigoi aurreateazua.
- b) Kare-zementuzko hormigoia.
- c) Hormigoi armatua.
- d) Hormigoi erregogorra.

21.- Trenkaden eraikuntza; adierazi zein den erantzun zuzena.

- a) Adreiluak ilara guztietan zehar etenik gabeko juntura bertikalak ezarriz kokatuko dira.
- b) Aparailu mota guztietan adreiluak juntura-hautsika jarriko dira.
- c) Ilaren arteko juntura horizontalen lodiera 2 cm-tik gorakoa izango da.
- d) Adreiluak ondo sikatuta egongo dira morteroren ura xurga ez dezaten.

22.- Zer da azulejo-estaldura:

- a) Material zurrinak erabiliz egiten den estaldura horizontala.
- b) Materiala gorabehera egiten den estaldura horizontala.
- c) Material zurrinak erabiliz egiten den estaldura bertikala.
- d) Ez da estalduta bat.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

23.- Hustubide-sarean mota honetako hodiak erabiltzen dira:

- a) Altzairu galbanizatuzkoak.
- b) Kobrezkoak.
- c) PVC plastikozkoak.
- d) Aukera guztiak zuzenak dira.

24.- Plastea edo mastika ematearen helburua hau da:

- a) Pintatu behar den azalera garbitzea.
- b) Hormak dituen protuberantziak kentzea.
- c) Pintatu behar den azalera berdintzea.
- d) Azalerak dituen desberdintasunak betetzea.

25.- Material hauetatik zeinek ez du balio azalera bat iragazgaitzeko?

- a) Kola-zementuak.
- b) Geruza asfaltikoak.
- c) Emultsio asfaltikoak.
- d) Pintura iragazgaitzaileak.

26.- Azuleju baten konponketaren azken prozesua hau da:

- a) Horman itsastea.
- b) Lehorrean garbitzea.
- c) Ertzak igeltsuarekin edo mastika zuriarekin estaltzea.
- d) Azulejua nibelatzea.

27.- Eraikin bateko ur hotzaren eta ur beroaren sarea material hau erabiliz egiten da:

- a) Burdina.
- b) Kobrea.
- c) PVCa.
- d) Beruna.

28.- Kableen konexioak egiteko elementu hauetatik zein ez da egokia?

- a) Erregletak.
- b) Titareak.
- c) Zinta isolatzailea.
- e) Lotune-borneak.

29.- Eraikuntza baten bertikaltasuna egiaztatzeko erabiltzen den erreminta hau da:

- a) Igeltsero-aitzurra.
- b) Plomua.
- c) Eskuaira.
- d) Horma-haria.

30.- Giltza ingelesa mota honetako sistema baten bidez erregulatzen da:

- a) Torlojua.
- b) Uhala.
- c) Katea.
- d) Palanka.



Elexalde Auzoa,9
48288 ISPASTER (Bizkaia)
Tfnoa.: 946842999 –946844025
Faxa.: 946243470
udala@ispaster.net
www.ispaster.net

ORDEZKO GALDERAK

31.- Ispasterko armarrria zerk osatzen du?

- a) Bi zuhaitz.
- b) Zuhaitz bat eta erreka.
- c) Zuhaitz bat eta mendia.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

32.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena.

- a) Ispasterren dauden elkarten artean hauek daude: nagusiena, gurasoena eta dantza taldearena.
- b) Ispasterren dauden elkarten artean hauek daude: nagusiena, kulturakoa eta mendi martxakoa.
- c) Ispasterren dauden elkarten artean hauek daude: nagusiena, gurasoena, eta kirolarena .
- d) Ispasterren dauden elkarten artean hauek daude: gurasoena, mendi martxakoa eta dantza taldearena.

33.- Ondorengo baieztapenetatik zein da zuzena.

- a) Ispasterren ez dago mediku kontsultarik, horretarako Lekeitioko Osasun Zentrora joan beharra da.
- b) Ispasterren udal gimnasioa dago eta astelehenetik larunbatera irekita egoten da. Igande eta jai egunetan itxita egoten delarik.
- c) Ispasterren udal liburutegia dugu eta astelehenetik larunbatera egoten da zabalik.
- d) Aurreko bat ere ez da zuzena.

34.- Zer egin behar da entxufe bat konpondu aurretik?

- a) Azalera garbitu.
- b) Korrontea moztu.
- c) Plaka desmuntatu.
- d) Erabiliko diren erremintak garbitu.

35.- Zapata da:

- a) Balbula bat.
- b) Lotura mota bat.
- c) Plastikozko zirrindola erdi-zurrun bat.
- d) Enrroskatzen den tapoi bat